

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, ARRAZAKERIAREN ETA XENOFOBIAREN AURKAKO ARRETARAKO ZERBITZUA EZARTZEKO PROGRAMA ESPERIMENTALA ONESTEN DUEN FORU AGINDUAREN PROIEKTUA PRESTATZEKO**

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Arretarako Zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen den edozein arrazakeria edo xenofobia egoeraren aurrean arreta integrala eskaintzeko beharrari erantzuten dio.

Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana Gobernuaren 2022ko martxoaren 16ko Erabakiaren bidez onetsi zen, eta neurri nagusitzat du "arrazakeriaren eta xenofobiaren biktimei arreta emateko zerbitzu publiko bat sortzea", arreta integraleko, bitartekotzako, justizia errestauratiboko eta abarretako zerbitzuak eskaintzeko. Horrela, zerbitzu horren bidez, herritarren eskubide guztiak eskuratzea bermatu nahi zaie arrazak, etniak, migrazioak eta interseksionalitateak eragindako bereizkeria egoeraren bat jasaten duen edonori eta bistaratze, informazio eta prestakuntza lanak egin nahi dira herritar guztientzat.

Gaur egun, Nafarroak ez du arrazakeria edo xenofobiagatiko diskriminazioaren biktimei arreta osoa emateko erakunde publikorik. Alde batetik, gorroto-delituen arloko tratamendu polizial eta judiziala dago, eta, bestetik, hirugarren sektorearen aholkularitza eta laguntza, baina baliabide integral eta holistikoa falta da. Beraz, beharrezkoa da proposatzen dugun espazio hau, barnean har ditzan arrazakeriak, xenofobiak, ijitoen aurkako jarrerek eta diskriminazio interseksionalak eragindako gorroto-istiluak eta -delituak prebenitu eta tratatzeko behar diren eragile guztiak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta horixe sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkari handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak).

Xedapen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritzi gero, planteaturiko arau proposamenaren gainean dituzten ekarpenak igor ditzakete helbide elektronikoa honetara: [migraciones.convivencia@navarra.es](mailto:migraciones.convivencia@navarra.es). Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun baliouduneko da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2022ko apirilaren 5ean. Ayllu-Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Zerbitzuko zuzendaria. Idoia Saralegui San Sebastián. (Sinadura jatorrizkoan dago).